

3/25

irizpena

Euskadiko Kooperatiben Legearen
Erregelamendua onartzen duen
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko apirilaren 4a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 3/25

I.- AURREKARIAK

2025eko martxoaren 17an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, “Dekretu-proiektua, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena” buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultatzen zaigun arauak 11/2019 Legean jasotako legezko garapen-agindua bete nahi du, hau da, Legea aplikatzeko eta garatzeko arauak ematea, bertan gutxieneko moduan jaso diren eta pertsona juridiko kooperatiboaren antolamenduan eta funtzionamenduan eta haren jardueran segurtasun juridikoa bermatzeko xehetasun handiagoa behar duten gaiak definitzeko.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko martxoaren 31rean, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen Batzordearen Osoko Bilkuran lantzeko. Han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

"Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektuak" azalpen-zatia, artikulua bakarra, xedapen indargabetzailea eta eranskina ditu.

Azalpen-zatia

Zioen azalpenak azaltzen duenez, kooperatibei lotutako araudiaren bilakaerari dagokionez, hasiera batean Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legearekin lortu zen figura horri segurtasun juridikoa ematea, enpresa-proiektu garrantzitsuak garatzea ahalbidetuz, batez ere lan elkartuaren sektorean. Ondoren, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearekin eta haren hogeita sei urteko indarraldiarekin, urrats erabakigarria eman zen euskal kooperatiben behar garaikideetara egokitutako eredu juridiko kooperatiboa finkatzeko.

Legeria egokiaren eskakizunak legeak etengabe egokitzera behartu zuen, eta bai 4/1993 Legea bai hura garatzeko arauak hainbat aldiz aldatu dira erronka berrietara egokitzeko.

Azalpenak jarraitzen du honakoa aipatuz: araudiaren sakabanatze-testuinguru horretan sortu zela Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea, hain zuzen 4/1993 Legea denboran zehar arian-arian aldatuz joan ziren lege-testuak bateratzeko premiaren ondorioz.

Hala ere, kooperatiben erregulazio-alderdi guztiak lege-egoitzan osorik eratzea ezinezkoa denez, eta errealitate ekonomikoa gero eta globalizatuagoa denez, eta etengabe eta azkar aldatzen denez, beharrezkoa da abenduaren 20ko 11/2019 Legearen arau-garapena abian jartzea, haren aurrekoarekin egin zen bezala.

Arauzko egoitzan ere bete da garapen-lana. Lehenik, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 84/2023 Dekretuaren bidez, eta, ondoren, kooperatiben ikuskapenari eta zehapen-prozedurari buruzko

otsailaren 13ko 12/2024 Dekretuaren bidez.

Irizpen honen I. puntuan (aurrekariak) jaso dugun bezala, orain sustatzen den erregelamendugarapena 11/2019 Legean jasotako lege-agindua betetzeko beste urrats bat da, hau da, legea aplikatzeko eta garatzeko arauak ematea, legean gutxienez jaso diren eta pertsona juridiko kooperatiboaren antolaketan eta funtzionamenduan eta hark zabalduetako jardueran segurtasun juridikoa bermatzeko xehetasun handiagoa behar duten alderdiak definitzeko, batez ere lege berrian aurreikusitako alderdi berritzaileenetan.

Araugintza-ekimen horrek honako alderdi hauei eragingo die: sozietate-araubideari (kooperatibajardueran parte hartzea, sozietate-baja eta eszedentzia-egoera) eta ekonomia-araubideari (dirua itzultzea, borondatezko erreserbak, galerak egozte, administratzaileen ordainsariak), eta, batez ere, Legean gutxienerako moduan araututako kooperatiba-mota jakin batzuen mota juridikoaren integrazioari, horiek aukera ematen baitute sortzen ari diren sektore ekonomiko berrietan kooperatibizatze, bai eta kooperatiba-sozietateak sortzeko eta sustatzeko metodologia berriak jasotzeko ere.

Xedapen-zatia

Artikulu bakarra, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Xedapen indargabetzailea, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 29ko 58/2005 Dekretua indargabetzen duena.

Azken xedapena, araudia indarrean sartzeari buruzkoa.

Dekretuaren eranskina, lau kapituluz osatutako erregelamendua arautzen duena, 28 artikuluren bidez.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua jarduera kooperatibizatuan parte hartzea arautzen du, 2. artikulua bazkideen modalitateak jorratzen ditu, 3. artikulua bazkide langile edo iraupen mugagabeko lan-bazkide izateko aukera arautzen du, 4. artikulua aldi baterako lotura soziala amaitzeagatikoko bajaren kalifikazioari buruzkoa da, 5. artikulua bazkidearen nahitaezko baja arautzen du eta 6. artikulua zehapenespedientei buruzkoa da.

II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

7. artikulua kapital sozialari buruzkoa da, 8. artikulua balantzearen erregularizazio-erreserbaren xedea kapital sozialari buruzkoa du, 9. artikulua ekarpenen itzulketari buruzkoa da, 10. artikulua ekarpenen eskualdagarritasunari buruzkoa, 11. artikulua kapital sozialtzat hartzen diren mendeko finantza-ekarpenak arautzen ditu, 12. artikulua erreserba erabilgarrien xedeari buruzkoa da, 13. artikulua galeren egozpena jasotzen du, 14. artikulua soldatapeko langileek emaitzetan duten partaidetza zehazten du, 15. artikulua hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena jorratzen du, 16. artikulua kooperatiben eraldaketa arautzen du, 17. artikulua lan-aurrerakinak eta 18. artikulua araubide ekonomikoa likidazio-prozesuan.

III. KAPITULUA. KOOPERATIBEN ORGANO SOZIALEN FUNTZIONAMENDUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDERDIAK

19. artikulua bazkide moten edo modalitateen arabera boto proportzionala zehazten du, eta 20. artikulua batzar orokorraren garapenari heltzen dio.

IV. KAPITULUA. KOOPERATIBA MOTAK

21. artikulua lan elkartuko kooperatibetan probaldia zehazten du, 22. artikulua menpeko lantokia edo lantoki osagarria arautzen du, 23. artikulua lan elkartuko kooperatibetako auziak jorratzen ditu, 24. artikulua kooperatiben plataformak zehazten ditu, 25. artikulua etxebizitza-kooperatibak jorratzen ditu, 26. artikulua enpresa-sustapeneko kooperatibak, 27. artikulua kooperatiba mistoak eta 28. artikulua kooperatiba integralak.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua arabera, EAEk eskumen eskusiboa du kooperatiben arloan. Eskumen hori baliatuz, Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legea onartu zen. Hamarkada bat geroago, eta erregulazioa kooperatibismo moderno eta aurrerakoi baterantz zuzentzeko beharrak bultzatuta, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea iragarri zen. Lege horrek izandako indarraldi luzea funtsezko mugarriz izan da euskal kooperatiben premietara egokitutako eredu juridiko kooperatiboa sendotzeko, gero eta konplexuagoa den testuinguru ekonomiko eta sozial honetan.

Aipatutako 4/1993 Legea hainbat aldiz aldatu zen euskal kooperatibismoaren bilakaerari eta joerei egokitzeko, eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeari eman zion lekukoa. Lege hori ordura arte indarrean zeuden lege-testuak bateratzeko asmoz sortu zen, bai eta kooperatiben testuinguruak euskal ekonomiaren eta gizartearen funtsezko zutabe izaten jarraituko zuela bermatzeko beharrezkotzat jo ziren erregulazio-berrikuntzak jasotzeko ere.

Euskal legegileak jakin badaki ezin dela kooperatiben arloko erregulazioa agortu 11/2019 Legearen bidez, eta Eusko Jaurlaritzari dei egin dio beharrezkotzat eta egokitza jotzen dituen Legearen aginduak erregelamendu bidez garatzeko, betiere lege-arauaren espirituarekin eta hitzez hitzeko edukiarekin bat etorritik.

Erregelamendua garatzeko lan horren erakusle dira ekainaren 13ko 84/2023 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena, eta otsailaren 13ko 12/2024 Dekretua, kooperatiben arloko ikuskarpenari eta zehapen-prozedurari buruzkoa, zeinak funtsezko zehaztapenak sartu baitituzte Legeak Kooperatiben Erregistroaren funtzionamenduari eta kooperatiba-sozietateen arloko ikuskarpen- eta zehapen-ahalmenari dagokionez zehaztu zituen helburuak lortzen direla bermatzeko.

Orain egindako kontsultak hizpide duen arauari dagokionez, adierazi behar da asmo handiagoko bokazioarekin sortu dela, izan ere, hasiera batean, indarrean dagoen 11/2019 Legean minimoki jaso diren eta pertsona juridiko kooperatiboaren antolaketan eta funtzionamenduan eta hark garatutako jardueran segurtasun juridikoa bermatzeko xehetasun handiagoa behar duten gaiak hartzen ditu, bereziki Lege berriak sakonago berritzen dituen alderdiei dagokionez.

Aurrekoan oinarrituta, Dekretu Proiektuak sozietate-erregimenarekin (jarduera kooperatibizatuan parte hartzea, sozietate-baja eta eszedentzia-egoera) eta erregimen ekonomikoarekin (errenboltsoa, borondatezko erreserbak, galeren egozpena, administratzaileen ordainsaria) lotutako alderdiak arautzen ditu, eta, batez ere, Legean minimoki araututako kooperatiba-mota jakin batzuen mota juridikoaren integrazioarekin lotutako alderdiak, zeinak sortzen ari diren sektore ekonomiko berrietan kooperatibizatzeke aukerak dakartzaten, baita kooperatiba sozietateak sortzeko eta sustatzeko metodologia berriak ere.

Araua egiteko espedientean justifikatu den bezala, ez dago beste aukera arautzaile edo ez-erregulatzailearik ekimen hori sortzea eragin duten helburuak lortzeko, ezta erantzun bat eman behar zaizen arazoei eta beharrei aurre egiteko ere, eta horiei behar bezala helduko zaie araugintzako ekimen honen bidez.

Aurreko guztia kontuan hartuta, **Kontseilu honek positiboki baloratzen ditu kontsultatu zaigun dekretu-proiektuaren edukia eta ekimena.**

Hala ere, agerian utzi nahi dugu, Emakundek egindako txostenean jasotzen den bezala, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen Azken Xedapenetako Bigarrenak jasotako lege-aginduak “berdintasun-plan kooperatiboen” figura erregulatzaera behartzen duela. Ildo horretatik, jasotako txostenei emandako erantzunean adierazi da beste arau baten bidez egingo dela berdintasun-plan kooperatiboak arautzeko erregelamenduaren garapena. Ondorioz, uste dugu interesgarria izango litzatekeela erregelamendu honek kooperatiben berdintasun-planak egiteko eta erregistratzeko prozedura txertatzeko ematen duen aukera aprobeztatzea, derrigortasuna gauzatu dadin.

Bestalde, iraupen mugagabeko bazkide langile edo lan-bazkide izateko aukeraz baliatzea arautzen duen 3.1 artikuluan, iraupen mugatuko kontratuen titular diren bazkide langileek edo lan-bazkideek, egoera horretan hiru urteko aldia metatuz gero, iraupen mugagabeko bazkide izateko aukera daukatela jaso da. Hiru urteko aldia Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 26.2 artikuluan jaso den arren, lan arloko legeria aldatu (32/2021 LED) eta lau urte igaro diren honetan, aldi hori gehiegizkoa iruditzen zaigu, eta, beraz, Sailari eskatzen diogu Euskadiko Kooperatiben Legea berrikusi dezala, iraupen mugagabeko bazkide izateko behar den denbora murriztu ahal izateko.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzen jo du “Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen Dekretu Proiektua” izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin

Bilbon, 2025eko apirilaren 4a

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria